

Kontratazio- eta kaleratze-politika

Artezkaritza Kontseiluak 2024.05.29ko bileran erabaki hauek hartu zituen:

(...)

Bigarren erabakia: **Kontratazio politikari** dagokiona. Aldi baterako pertsonei denbora luzean eusten badiegu finko egiten dituzte eta horrek arrisku ezberdinak ditu, aipatu izan dugun moduan. Erabakia:

Errotazio sistema planteatzen da. Egonkortzeko arrisku larrian dauden irakasleei ez berritzea. Horien Ikastolarekiko harremana “garbitu” eta, beraz, urtebete pasatzean berriro deitzea.

Zuzendaritzak **estrategikoak diren pertsona gutxi batzuren alde egitea onartzen da. Horrek egonkortzeko arriskua ekarriko badu ere** (arriskua, baina mugatua edo neurtua). Pertsona horiek gakoak izango dira etapan eta salbuespena izango litzateke. Horiekin ohiko egitura osatuko genuke eta gehienez etapa bakoitzeko bat edo bi izango lirateke.

Hirugarren erabakia: **Kaleratzeak irizpide** hauen baitan erabakiko ditu zuzendaritzak:

- Langilearen borondatea. Alegia, kasuren batean langileren batek Ikastola uzteko interesa izan dezake.
- Langilearen ebaluaketa. Ikastolak ebaluaketa sistema bat du langilearen lana baloratzeko. Ikastolak lortu nahi duen ikasle Pertsona Ereduaren baitan langileok izan behar ditugun konpetentzia eta ditugun funtzioen balorazioa egiten da.
- Langilearen antzintasuna.
- Aurrekoaren ondorioz, langileari ordaindu beharreko kalte-ordainak.

Lau horiek kontuan hartzekoak dira; denak eta kasuz kasu eta banan-banan aztertu eta lau horiek ponderatuta erabakiak justifikatu eta hartuko dira.